| Programa | Azpikontzeptua | Euro |
|---|---|---|
| 9211 | 431.00 | 21.027,02 |

2008ko udazkeneko Eskola Bidaiarien jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funtsok.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko apirilaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

| Programa | Subconcepto | Euros |
|---|---|---|
| 9211 | 431.00 | 21.027,02 |

Los fondos se destinarán a la financiación del desarrollo de las actividades de Escuelas Viajeras 2008, etapa de otoño.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

**2784**

74/2008 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea sortzen duena.

Uztailaren 6ko 137/2004 Dekretuaren bidez Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea sortu zen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa eta helburu honekin: Administrazioek sustatutako edo titularitate publikopeko obretan segurtasuna hobetzeko beharrezko baldintzak ezartzea.

Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea iraunaldi mugatuaz sortu zen, hain zuzen ere 2003-2006 Laneko Osasun eta Segurtasunerako 2003-2006 Plan Zuzentzaileari zegokion iraunaldiaz, eta iraunaldi hori 2006ko abenduaren 31n amaitu zen.

Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea tresna baliagarria suertatu da batzordearen sortze-helburua lortzeko eta, horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Osasun eta Segurtasunerako 2007-2010 Plan Zuzentzaileak, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko uztailaren 3an onartutakoak, bere kudeaketa-ereduan, Batzorde hori sartzen du eta garrantzi berezi ematen dio honako jardute-esparru hauetan: eraikuntza alorrean, azpikontratazioaren arazoetan eta erakunde arteko konpromiso eta koordinazioan.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

**2784**

DECRETO 74/2008, de 29 de abril, por el que se crea la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas.

El Decreto 137/2004, de 6 de julio, creó la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas, como órgano colegiado adscrito al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, con el objeto de establecer las condiciones necesarias para mejorar la seguridad en las obras de titularidad pública o promovidas por las Administraciones Públicas.

La Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas se creó con una vigencia limitada al período del Plan Director de Seguridad y Salud Laborales 2003-2006, por lo que su periodo de vigencia finalizó el 31 de diciembre de 2006.

La Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas se ha mostrado como un elemento útil para la finalidad para la que se constituyó, razón por la cuál, el Plan estratégico 2007-2010 de Seguridad y Salud Laborales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Consejo de Gobierno el día 3 de julio de 2007, incluye, en su modelo de gestión, a dicha Comisión, atribuyéndole especial relevancia en aquellas líneas de actuación relacionadas, principalmente, con el sector de la construcción, la problemática de la subcontratación y el compromiso y la coordinación interinstitucional.

Erabilgarritasun-arrazoiengatik, halaber, Eusko Legebiltzarreko Lan eta Gizarte Ekintzarako Batzordeak, 2007ko urriaren 22an egindako bilkuran, Laneko Osasun eta Segurtasunerako 2007-2010 Plan Estrategikoaren aurkezpen eta eztabaida dela zio, honako ebazpen-proposamena onartu zuen:

Egungo planak dirauen bitartean Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea izaera formalez atzera birgaitzeko eskatzen dio Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari.

Horrenbestez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua, izaera eta atxikipena.

1.– Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea sortzen da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa eta helburu honekin: Administrazioek sustatutako edo titularitate publikopeko obretan segurtasuna hobetzeko beharrezko baldintzak ezartzea.

2.– Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordeak iraunaldi mugagabea izango du.

*2. artikulua.–* Eginkizunak.

Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordearen funtzioak honako hauek dira:

a) Administrazioek sustatutako edo titularitate publikopeko obretan lan-segurtasunari eragiten dioten politiken koordinazioa ezartzea.

b) Obra publikoetan segurtasun-baldintzak hobetzeko diren ekimenei dagokienez laguntza ematea eta txostenak egitea.

c) Obra publikoen arloan laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez indarreango araudia betetzea zaindu eta sustatzea faboratzen duten neurriak proposatzea.

d) Arlo honetan herri-administrazioen lankidetza bultzatzeko neurriak proposatzea.

*3. artikulua.–* Osaera.

1.– Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordeak honako kideak izango ditu:

a) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordea, zeinak lehendakari jardungo baitu.

b) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantza zuzendaria.

c) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari orokorra.

d) Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ordezkari bat.

Por la misma razón de utilidad, la Comisión de Trabajo y Acción Social del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 22 de octubre de 2007 con motivo de la presentación y debate del citado Plan Estratégico 2007-2010 de Seguridad y salud Laborales, aprobó la siguiente propuesta de resolución:

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a restaurar nuevamente con carácter formal la Comisión Interinstitucional de la Obra Pública durante la vigencia del plan actual.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de abril de 2008,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto, naturaleza y adscripción.

1.– Se crea la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas, como órgano colegiado adscrito al departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, con el objeto de establecer las condiciones necesarias para mejorar la seguridad en las obras de titularidad pública o promovidas por las Administraciones Públicas.

2.– La Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas tendrá una vigencia indefinida.

*Artículo 2.–* Funciones.

Son funciones de la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas las siguientes:

a) Establecer la coordinación de las políticas con efecto sobre la seguridad laboral en las obras de titularidad pública o promovidas por las Administraciones Públicas.

b) Informar y asesorar sobre las iniciativas dirigidas a mejorar las condiciones de seguridad en las obras públicas.

c) Proponer medidas que potencien la promoción y vigilancia del cumplimiento de la normativa vigente en materia de seguridad y salud en el trabajo en el ámbito de las obras públicas.

d) Proponer medidas que potencien la cooperación de las Administraciones Públicas en este ámbito.

*Artículo 3.–* Composición.

1.– La Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas estará integrada por los siguientes miembros:

a) El Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, que actuará como Presidente.

b) El Director de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

c) El Director General de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

d) Un representante del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

e) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkari bat.

f) Garraio eta Herri Lan Sailaren ordezkari bat.

g) Foru Aldundien ordezkari bana.

h) EUDELen ordezkari bat.

i) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendariorde teknikoa, zeinak idazkari jardungo baitu.

Gutxienez zuzendariaren eta edo antzekoaren maila izango dute Batzordeko kideek, eta eurak hartzen dituzten erakundeen edo administrazio-organoen titularrek izendatuko dituzte.

2.– Bilkurako aztergaiek berariaz eragiten dien entitate edo erakundeen ordezkariak, batzarretara etor daitezen, dei ditzake lehendakariak.

3.– Zuzendariordetza Teknikoaren bitartez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari dagokio Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordeari laguntza teknikoa ematea; eta, horretarako, dokumentazioaren eta gaien gaineko prestakuntza- eta programazio-funtzioak izango ditu.

*4. artikulua.*– Proiektuak garatzeko taldeak.

1.– Ekimenak eta proposamenak garatzeko, Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordeak lan-talde bereziak eratu ahalko ditu. Euren eskumen-arloaren arabera taldeen osaeran parte hartzen duten sail eta erakunde bakoitzak izendatutako teknikari adituek parte hartu ahalko dute taldeotan.

2.– Sail eta erakundeei dagokie, euren eskumenen barruan eta bakoitzari dagokion zatiaren arabera, ekimen eta proposamen horiek onartu eta ondoren gauzatzea. Hala ere, eskumena duten erakundeek akordioak eta hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte ekimen eta proposamenak batera gauzatzeko.

3.– Esleitutako proiektua gertatu ostean lan-taldeak ezeztatuko dira.

*5. artikulua.*– Bilkuretarako deiak egitea.

Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordeak bi bilkura egingo ditu urteko, gutxienez. Lehendakariaren ekimenez ezohiko bilkurak ere egin ahalko dira.

*6. artikulua.*– Funtzionamendu-gastuak.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren aurrekontu-kredituen kargura izango dira Herri Lanetarako Erakunde Arteko batzordearen funtzionamendu-gastuak.

e) Un representante del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

f) Un representante del Departamento de Transporte y Obras Públicas.

g) Un representante de cada Diputación Foral.

h) Un representante de Eudel.

i) El Subdirector Técnico de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, que actuará como secretario.

Las personas que formen parte de la Comisión tendrán rango mínimo de Director o Directora o similar, y serán nombrados por el titular de los respectivos órganos administrativos o instituciones que la integran.

2.– El Presidente podrá convocar para asistir a las reuniones a representantes de otras entidades e instituciones especialmente afectadas por los asuntos del orden del día de la sesión correspondiente.

3.– Corresponderá a Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, a través de la Subdirección Técnica, prestar el apoyo técnico a la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas, desarrollando funciones de programación y preparación de asuntos y documentación.

*Artículo 4.*– Grupos de desarrollo de proyectos.

1.– Para el desarrollo de propuestas e iniciativas, la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas podrá constituir grupos de trabajo específicos. En estos grupos participarán técnicos expertos designados por cada Institución y Departamento implicado en su elaboración según su área competencial.

2.– La aprobación y posterior ejecución de dichas propuestas e iniciativas corresponderá a cada Departamento e Institución en la parte que le corresponda, dentro de sus competencias. A tal efecto, se podrán formalizar acuerdos y convenios entre las Instituciones competentes para la ejecución conjunta de las mismas.

3.– Los grupos de trabajo se disolverán tras la elaboración del proyecto encomendado.

*Artículo 5.*– Convocatoria de las reuniones.

La Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas celebrará, al menos, dos sesiones ordinarias al año. Así mismo, podrá celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de su Presidente.

*Artículo 6.*– Gastos de funcionamiento.

Los gastos de funcionamiento de la Comisión Interinstitucional de las Obras Públicas serán con cargo a los créditos presupuestarios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Erregelamendua garatzea.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko apirilaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

**2785**

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: Agindua, 2008ko urtarrilaren 28koa, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena. Honen bidez, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten mailako lanpostuak, ekonomia, politika eta lehiakortasunaren ezagutzako arlokoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta daudenak, betetzeko lehiaketarako deialdia eta berariazko oinarriak onartzen dira.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuak 24.2.a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratuko dute.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

**2785**

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 28 de enero de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueban la convocatoria y las bases específicas del concurso para la provisión de puestos de trabajo de niveles de complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A que pertenecen al dominio de conocimiento economía, política y competitividad, reservados a personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, insertando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.